

# Trenak

Felipe Juaristi

"Zorrotz begiratutako trenak"  
Bohumil Hrabal  
euskaratzailea: Fernando Rey  
Alberdania / Elkar, 2002

Bohumil Hrabal Brnon jaio zen, Moravian, 1914an, Lehen Mundu gerra piztu zen urtean. Pragan hil zen 1977an. Oraindik bizirik balego, gure aitaren adina izango luke. Nik oso maitea dudan idazlea da Hrabal, ez gure aita jaio zen urte berean jaio zelako, ez, idazle atsegin, alai eta umore handikoa delako baizik. Ez dakit nori irakurri diodan umorea egitea oso serioa dela, eta ez zaiola halako lanik edozeini eman behar. Dena dela, umore klase asko dago, baina, nire iritzian, bitan bana daitezke umore klase guztiak: umore sanoa batetik, eta umore gaiztoa bestetik. Azken hau, umore gaiztoa alegia, umoregabeko zerbait bihur daiteke, zerbait iraingarri, graziarik batere ez duen zerbait. Txiste askorekin gertatzen den kontua da. Norbaitek taberna batean kontatzen du halakorik eta, jendeak barrez egin beharrean, negar egiten du, negargarriak izaten direlako askotan tabernetan kontatutako txisteak. Tabernak aipatu ditudanez, ezin aipatzeke utzi Bohumil Hrabalen tabernazaletasuna. Zaletasun hori idazle askok barnean daramaten zera da, eta beste idazle askok kanpoan ere badaramatena, halako moldez non idazle bat kanean paseatzen ari dela ikusita, jakin baitaiteke tabernazaletasunik ote duen barnean ala, bestela, kanpoan. Bohumil Hrabali, hari buruzko biografia ederra irakurrita, barnean eta kanpoan antzematen zitzaion tabernazaletasuna, ez alferrik ordu asko pasatu zituen bere bizitza luzean tabernak aztertzen, tabernak arakatzen, tabernak ezagutzen eta, azkenik, bat aukeratu zuen egoitzatzat. Izan ere, Bohumil Hrabalek taberna batean idazten zuen eta horregatik, seguru asko, dute haren liburuen taberna-zulo usaina, taberna-zulo kerua, taberna-zulo izaera, eta hori erraz antzematen da haren liburuetan. Esaterako, Fernando Reyk bikain itzuli duen lan honetan. Bigarren Mundu Gerrako kontuak dira, treni eta geltokiei buruzko kontuak, baina horretaz gainera edo horrekin batera tabernetan sartuta bizi diren pertsonaiak daude, pertsonaia atseginak, heroiak, nire iritzian.

*El Diario Vasco, 2003-03-23*